



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Geometria aldakorra

Geometria aldakorra. Politikaren itsasoan arrantza etengabea nabigatzeko modu bat. Gaur halakorekin, bihar horrelakorekin eta etzi honelakorekin. Fideltasun guti eta izaera promiskuoa. Ligatzaile trebeak bezala, begi ona behar du eta maila apaleko printzipioak, etekinaren fabore. Lanbide horretan, EAJ izan dugu maisu. Bere opilari su egiteko baldintzan, edonoiz, edonola, edonorekin beti konpontxo egiteko prest. Tasun ala keria? Nork, noiz, nola.

Jelkideen sigi-sagak hain ongi ezaguturik, zertaz espanta orain Sanchezen PSOREkin? Ez zuen lan erreforma aterako bere azken urteetako ohiko bidai-deekin; ez, bederen, berak eta Bruselak nahi zuten horretan. Prestidigitadoreak lagun berriak aurkitu ditu bere txisteran. Ciudadanosekin lortutako akordioak ez du soka luzerik ekarri. Hartaraino jotzen da hilotzat Arrimadasen alderdia. UPN-rekin egindakoak lurrikara eragin du.

Zirko itxura izan du erreformaren onespén txiripazkoak. Tarteko, alderdi nabarristak Madrilen dituen bi diputatuen *traizioa*, eta horrek UPNren baitan piztu duen krisia. Iji eta aja egin dugu Sayasen eta Adaneroren kontura. Irri eta orro, Javier Esparzaren bizkar. Algarek goitiago jo dute sozialistek UPN zein merke erosi duten zabaltzean. Madrilgo Gorteetako bozketak Sanchezendako zuen garrantziaren aldean, ahuntzaren gauerdiko eztularen pareko dirudi adostutako prezioak.

Kasu, ordea. Edukietatik harata, Nafarroan bati baino gehiagori izerdi hotza eragin dio UPNko burua Madrilgo PSOREkin mahai berean jarri dela jakite hutsak.

Nabarristen eta sozialisten arteko akordio etengabeak moldatu du Foru Komunitatearen azken 40 urteko historia politikoa. Euskaltzaletasuna nafar erakundeetatik kanpo uztea zen elkar ulertze horren abiaburua eta helmuga. Ildo baztertzaila hori bi gobernuk baidatzen ez dute eten: Otano sozialistarenak, 1995-96an, CDNrekin eta EArekin, IU babesle zela, eta Maria Chiviterenak, 2019az geroztik, Geroa Bairekin eta Podemosekin, Bilduk sostengatuta. Azken hori baino lehenago, 2015eko hauteskundeetako emaitzek PSN indar erabakigarriak gabe uzten bilakatu zen Uxue Barkos lehendakari.

Ezin erran sozialisten agintaldi hau bidelagun abertzaleak pozez zorutzen uzten ari denik, hizkuntza kontuetan bereziki. Dударik ez da, ordea: hagitzez okerragoa litzateke UPNren eta PSNren arteko akordioaren itzulera, baita hizkuntza kontuetan ere. Agian eskertu beharko diegu Esparzari eta enparauei. Posibilitate hori ez dela inoiz desagertu oroitarazi digute egun hauetan. Pilak jartzeko balio badigu, gaitz erdi. Ea geometria politikoaren bertze lema-ukaldi batek ez gaituen berriz ere linbora bidaltzen. ●

Salah



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Irakurleak badaki 2015eko Parisko atentatu izugarrien auzia hurbiletik segitzen dudala, eskura dauzkadan prentsa baliabideei esker. 130 herritarren herioa eragin zuten komandoetatik bizirik ateratako kide bakarra Salah Abdeslam izan zen eta bere bizkar datza justizia egin beharraren kargarik handiena. Bost urte eman ditu isilik presondegiko isolamenduan, eta iragan egunean, mintzatzen hasi da. Bere burua zuzitzeko? Bere ekina esplikatzen saiatzeko? ISIS oraindik ere justifikatzeko?

Agerpenaren hasieran errepikatu du ez ziola inori minik egin, ez zuela

nehor hil... espero balu bezala libre eta garbi ateratzea tribunal horren aitzine-tik. Adierazpenetako punturik interesgarrienak gutako askoren kasko zokoan dabilen gaudeari erantzuna ekarri zion: gerrian zeukan zartagailu zintari ez eragitea erabaki zuen azken momentuan... erabaki kontzientea, nahiz eta ez dakien *a posteriori* ongi egin duen ala ez. Erantsi zuen mutu geratu zela anaia jihadisten aldetikako mendeakuen beldurrez eta neurri batean koldar hutsaren antzera ibili zelako sentimenduak lehertzen duelako.

Hor dugu arrapostua. Ez du gertatua barkatzen. Bistan dena. ●